

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

6 positibo berri
21.196 positibo guztira*

NAFARROAN

5.482 positibo guztira
1 UCI
6 hildako
528 hildako

*Hernanin 67 Astigarragan 23

Sendatuak EAEn: 4.336; Naf: 9.557

Kultur ekintzez betea dator, Hernaniko Udalak antolatutako Udako kultur programazioa

Orain arte, Hernaniko Udalak, kulturaz gozatzeko aukerak eman ditu; online bidez, eta 'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' egitasmoarekin. Uda helduenez, 'Uda Hernanin Programazioa' jarri du martxan, hamaika ikuskizunekin.

HERNANI UDA PROGRAMAZIOA

Bizi izan dugun egoerak hamai-ka ekitaldi ezabatu ditu egutegietatik. Hala ere, Hernanin kulturaz gozatzeko aukerak aurrera jarraitu du, izan ere, maiatza eta ekaina bitartean, etxeetatik ere «kulturaz gozatzeko aukera izan dute» herritarrek, kultura online eskaini baitu Udalak. Honen emaitza «oso positiboa» izan dela ere jakinarazi du. Jarraian, *Kulturaz gozatu, elkar zaindu* egitasmoa ere sortu zuten, «San Joanetan zerbait simbolikoa egiteko asmotan». Eta oraingoan, kultur ekintza berezi bezain egokituak prestatu dituzte, uztaila eta abuztuan izango direnak. Udako kultur programazio honi, asteburu honetan eman zaio hasiera, *Zinea kalean* ekintzarekin.

Uda Hernanin programazioaren baitako ekintza hauek «familia, lagun eta inguruko jendearekin gozatzeko proposak dira». Oraingoan, Atsegindegan egingo direla azaldu du Udalak, hala ere, «egoeraren arabera, lekua aldatu daiteke». Kultur ekintza hauetara bertaratzeko, aurrez gonbidapenak hartu behar dira, Biterin. Doakoak dira, eta astero jarriko dituzte sarrerak eskuragai, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara. Hernaniar artista asko izango dira Uda Hernanin programazioan parte hartu dutenak, hala nola, Hernaniko Musika Banda, Ainhoa Larrañaga...

Egoerak behartuta gainera, neurri guztiak hartuko dira kontutan, besteak beste, eserle-

kuak distantzia batekin jarriko dira, ekitaldietara sartu eta ateratzeko maskarila erabili behar da, «behin eserita egotean, kendu daiteke noski». 200 pertsonako aforoa ezarri dute muga gisa, beraz, aurrez gonbidapenak hartzea eskatu dute, «guk ere kontrol bat eramateko».

Zenbait kultur ekintza, duela hilabete batzuk egitekoak ziren, «baina pandemiak eraginda, pendiente geratu ziren», eta uda honetako programaziora ekarri dituzte, esaterako, Maria Berasarte, Tonbola antzerkia, eta Basoa dantza emanaldia.

Orain arte antolatutakoak, «oso emaitza onak»

Aipatu moduan, pandemiak Hernaniko kultura izan du eragina, baina Hernaniko Udala kultur sailarekin batera buru-belarri aritu da, «herritarrek kulturaz gozatzeko jarraitu dezaten». Horretarako, haisera batean, online programazioa eskaini zuen, eta «oso emaitza positiboak izan ditugu. *Kulturaz gozatu, elkar zaindu* egitasmoan, txupinazioa Steaming bidez eman genuen, eta jende mordoak ikusi zuen».

Hernaniarren ardura ere go-raipatu dute, «oso arduratsua izan dira herritarrek, pena handia genuen San Joan jaiak bere horretan egingo ez zirelako, baina herriaren erantzuna oso ona izan da». Auzoetan ere egon da mugimendua, eta «Auzo Elkarteek eman nahi dizkiegu eskerrak, emandako laguntza eta inplikazioagatik». Orokorrean, oso eskertuta daudela jakinarazi dute. **K**



Uztaila eta abuztuan zehar, kultur ekintza mordoaz gozatzeko aukera egongo da, herrian bertan.

UDAKO PROGRAMAZIOA

UZTAILA

11, Musika Bandaren udako kontzertu berezia. 19:30etan Atsegindegin.

18, Crusoe haur antzerkia.

Markeliñe Konpainia. 19:00etan Atsegindegin.

25, Eskulturak betetzea dantza tailerra. Myriam Pérez Cazabon. 11:00etan Chillida Lekun. Sarrera: 6 euro.

25, Ainhoa Larrañaga eta banda. Haritz Lauroba bateria, Iker Lauroba baxua eta kontrabaxua, Amaia Miranda gitarra eta Garazi Esnaola

pianoa. 20:00etan Atsegindegin.

26, Trashhhhh! txontxongiloak. 12:00etan Chillida Lekun. Sarrera: 6 euro.

ABUZTUA

1, Erik eta Win bertso-antzerkia. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio pianoa, eta eskusoinua Aitor Atxega gitarra. 20:00etan Atsegindegin.

8, Maria Berasarte. Lurra eta bidea musika emanaldia. Joseba Irazoki gitarra, Igor Telletxea perkusioa eta David Azurza ahotsa. 20:00etan Atsegindegin.

12, Pertseidak Chillida Lekun. Iza-

rren Behaketa. Aranzadi Zientzia Elkarte. 19:00etan ateak irekitzea. Behaketa 23:00-03:00etara. Sarrerak helduentzat 10 euro, eta haurrentzat 5 euro.

14, Panoli karabeta haur antzerkia. Ganso & Cía. 19:00etan Atsegindegin.

21, Tonbola antzerkia. Hika teatroa. 20:00etan Atsegindegin.

22, Argiaren Bila, Izipigamen tailerra. Nagore Legarreta. 11:00etan Chillida Lekun. Sarrera: 6 euro.

28, Basoa. Dantza emanaldia, Dantzas konpainia. 20:00etan Atsegindegin.

FUERTEVENTURA Abuztuak 14 7 gau Bilbotik hegaldia + trasladiak + apartamentua	UDARA 2020	456 €
LANZAROTE Abuztuak 22 7 gau Bilbotik hegaldia + trasladiak + apartamentua		558 €
TENERIFE Irailak 9 7 gau Bilbotik hegaldia + trasladiak + apartamentua		470 €
15 EGUN LEHENAGORA ARTE, GASTURIK GABE		
SARRIA SANTIAGO BIDEA UDARAN 6 gau 3* hoteletan, gosaria + "kredentziala"		380 €
CANTABRIA Uztaillaren 11tik 18ra arte Aparthotela 3* 2 heldu + ume, gosaria barne		720 €
NOJA Uztaillaren 11tik 18ra arte H** Pentsio erdian		370 €

www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI BIDAIAK
Urbietan 6
943 33 00 49
634 61 52 74

JARRAITU:
[Social media icons]

OGI BERRI OKINDEGIA
Rosa Morla

Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn: 943.55.41.04 - 618.269.314
rmorlaluengo@yahoo.es

AINHOA
Janaridenda

Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

EGURALDIA
GAUR Gaurkoan tenperatura gehiago igoko da eta maximoak 25 eta 30 °C artekoak izango dira. Oskarbi egongo da ordu askotan, eta noiz-behinka baliteke goi-hodei batzuk agertzea. **Min.14° / Max.25°**

BIHAR Bihar zerua lainotuta agertuko da. Iparraldeko haizea bizitu egingo da eta Tenperatura asko jaitsiko da: beroenak 20 °C-ren bueltan ibiliko dira. **Min.17° / Max.21°**

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraiko Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Agüado** Nagusia, 21 (Astigarra) **943 550327** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA

GIJUKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO ERREKREAZIO



Bakartxo Tejeria ezkerrean, Arantxa Tapia erdian, eta Iñigo Urkullu eskuinean.

Goikoetxea V eta Barrenetxea, eliminatuta

Atzo jokatu zuten Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketako ligaxkaren azken partidua. Barrenetxea eta Goikoetxea V, kanpoan gelditu dira.

HERNANI ERREMONTEA

Atzo arratsaldean, jokatu zen ligaxkako hirugarren eta azkeneko partidua, eta lidertza

mantendu zuten Juananeak eta Endikak, 10 punturekin, hori horrela, Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketako lehenengo finalistak dira.

Aldiz Barrenetxea eta Goikoetxea V ez dute semifinalerako pasea lortu. Beraz, Goikoetxea V, eta Barrenetxea kanpoan gelditu dira, bost puntu lortuta.

Ansa II eta Larrañaga semifinalerako pasako diren bigarren taldea izan da, 9 punturekin, eta Urriza eta Zubirik ere izango dute aukera semifinalak jokatzeko, 6 punturekin. **K**

Amorruaren aurkako kanpaina, bertan behera

2020ko Amorruaren aurkako kanpaina bertan behera gelditu da, «Covid-19ak eragindako osasun egoeratik».

GOIZUETA TXAKURRAREN TXERTOIA

Nafarroaren Albaitarien Elkar-goak eta Goizuetako Udalak, jakinarazi dute, 2020ko Amorruaren aurkako kanpaina bertan

behera gelditu dela, «Covid-19ak eragindako egoera larriagatik». Eta gogorazi nahi izan dute, «Nafarroan amorruaren aurkako txertoa derrigorrezkoa dela 4 hilabete baino gehiagoko txakurrantz», eta gainera, txerto batetik bestera, «bi urte baino gutxiago» igaro behar dira. Derrigortasun hori, jabeen ardura dela azaldu dute eta hortaz, «legez ezarritako epean txakurrari txertoa jartzeko ohiko albaitariarengana jo dezakezue». **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA
JOSE MARI ALBERDI ECHAVE

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Jose Mariren emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko uztailaren 5ean

IRAGARKI MERKEAK

Apartamentua alokagai Benidormen, Levanteko hondartzatik gertu. 60 m karratu, lau lagunentzat, bi pisinarekin. **Deitu: 670 415 133 (Maria Jose)**
Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrik emateko prest, deitu: 618119781
TZ19 Panasonic argazki kamara bat galdu zen, pasa den igandean, Lowe zorroa zuena. Karmelo Labaka birbilgunearen eta Atletismo pistaren artean. **Deitu: 626 454 340.**
Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
Etxebizitza alokairuan. Deitu 619 81 33 57
LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**
Neska euskalduna goizez edozer lan egiteko prest! Deitu: 637 30 28 52
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Energia berriztagarria eta industria izan zituen hizpide, EAJk

Pasa den ostiralean goizeko 11:30etan, EAJk, Akarregiko Industriagunean aurkezpena eskaini zuen eta «industria, jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa» izan ziren landutako gaietako batzuk.

HERNANI EAJ AURKEZPENA

Geroz eta gertuago daude Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak, hori dela eta, ostiralean, Eusko

Alderdi Jeltzalekoek, aurkezpena egin zuten Hernaniko Akarregi Industriagunean.

Aurkezpenean, Arantxa Tapia Garapen Ekonomiko eta Azpiegituretarako sailburuak aditzera eman zuen, asmoa dutela, industriaren kontsumoa oinarritzea energia berriztagarrietan, «gutxienez %20a». Eta honakoa azaldu zuen, «duela gutxi arte, hemendik gertu, industria kutsakorra geneukan. Orain *Basque Green* ekimena jarri dugu martxan, eta nahi dugu industriaren kontsumoa oinarritzea energia berriztagarrietan, gutxienez %20a. Baina era berean, energia eraginkortasuna landu behar dugu, ahalik eta energia gutxien erabiltzeko.

Gainera, berrerabilpena sustatu behar dugu, eta berrerabili ezin den kasuetan, aprobetxatu energia sortzeko. Gure apustua da industrialia, baina jasangarria, garbia eta berdea izango dena, eta hori da aurrera eramango duena Iñigo Urkullu lehendakariak, hurrengo legegintzaldian».

Ondoren, Iñigo Urkullu lehendakariak honakoa gaineratu zuen: «Europa mailan, 4.0 industriaren buruan kokatu da Euskadi. Industria politika sendoa garatzearen alde egiten dugu, eta produktuen industriatik, konponbideen industriara pasa behar dugu. Gure erronka da, industria izatea euskal ekonomia %40a baino gehiago, hain zuzen». **K**

JASOTA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen

Gurasook ere, 'Murrizketarik ez!'

Uztailean gaudelarik, jada 2020-2021 ikasturtea hasi da. Baina hasiera beldurgarria izango du kurtsoak martxa honetan, Koronabirusaz gain Hezkuntza Sailak beste birus bat gehitzea erabaki baitu: MURRIZKETAK du izena. Guraso elkarte bezala, izugarrikeria eta astakeria bat dela deritzogu Hezkuntza Sailak gure ikastetxe publikoetan langile zerrendetan hartu dituen neurriari, hurrengo ikasturtea ez-ohikoa eta zalantzez bete izango dela badakigulako. Hezkuntzak, eskenatoki ezberdinak aurrekusi dituen arren, guzti

haiek langile gutxiagorekin aurrera eramanez litezkeela hobetsi du. Hezkuntzan, langile publiko guztiak dira garrantzitsuak baina batzuk, are eta estrategikoagoak suertatzen dira. Gure Hernaniko Elizatxo ikastetxearen kasuan, orain arte lanaldi osoz zegoen eta 334 haurren kudeaketa zeraman jangelako arduradunari, lanaldia erdira murrizteko proposamena iritsi zaio; adibidez. Lanaldia murriztu, jangelako jarduna hain garrantzitsua denean familien kontziliazioarentzat? Are eta gehiago, iraileko berritasun eta

hartu beharko diren prebentzio neurrien aurrean?

Gure eskaera xumea da: Ikastetxetako plantillak mantendu eta indartu daitezela eskatzen dugu, gure haurren ikasketak eta osasuna bermatu daitezela. Honenbestez, Hezkuntzari baliabide publikoak hobetu eta gehitu ditzan eskatzen diogu, etorkizunari zain egon gabe. Etorkizuna, gure haurrak direlako, orain eta hemen gurekin dauden gure haurrak.

Iñigo Legorburu Arregi
Leoka Guraso Elkarte